

FORU AGINDUAREN PROIEKTUA, OSASUNeko KONTSEILARIAK EMANA, ZEINAREN BIDEZ PROFESIONALAK GAITZEKO PROZEDURA EZARTZEN BAITA, AHO-HORTZAK ZAINTEKO ZERBITZUAK EMAN DITZATEN HAURREN AHO-HORTZETAKO OSASUN LAGUNTZAREN PROGRAMAREN ESPARRUAN (PADI), NAFARROAN.

A) ZERGATIK DEN BEHARREZKOA ETA EGOKIA FORU AGINDUA ONESTEA

249/2011 Foru Dekretuak, abenduaren 28koak, Nafarroako Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa arautzen du.

Hark xedatzen duenez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatu behar du Nafarroan bizi diren 6 urtetik 15era bitarteko haurren aho-hortzetako osasun laguntza oinarritzakoa, zeina doakoa izanen baita. Halaber, Nafarroan honako hauek arta ditzakete Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programaren onuradunak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko odontologo nahiz estomatologoek, edo sektore pribatukoek, baldin eta horretarako ituna egina badute.

Sektore pribatuak, orain arte, programa horretako arreta-zerbitzuak eman ditu esparru-akordioen babesean eta kontratazio publikoko arauetara jarraikiz lizitatu eta adjudikatutako kontratuen bidez.

Prozedura horretan, bere burua eskaintzen zuten interesdun guztiak hartzen ziren, baldin eta deialdiko baldintzak betetzen bazituzten. Ez zen ezartzen eskaintzak alderatu edo balioztatze irizpiderik; ez zen mugatzen adjudikaziodunen kopurua, eta adjudikaziodun berriak sartzen ahal ziren esparru-akordioaren indarraldi osoan zehar.

Sistema hori, alabaina, ez zaio ongi egokitzen kontratu publikoaren definizioari, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak, Europako zuzentzauek eta kontratazio publikoari buruzko foru araudiak berak ezarri dutenaren arabera.

Horren ondorioz, beste autonomia-erkidego batzuetan arautu bezala, 249/2011 Foru Dekretua garatu nahi da, prozedura eraginkor bat ezarrita, gardentasuna eta tratu-berdintasuna bermatzen dituen bat. Prozedura horrek sektore pribatuko profesionalei aukera ematen die gaikuntza eskuratzeko, aho-hortzak zaintzeko zerbitzua eman dezaten Nafarroako Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programan sarturik, ezartzen diren baldintza eta betekizunekin, eta zerbitzua kalitatez emateko bermekin.

B) PROPOSAMENA

Proposatzen da onets dadila foru agindu bat, zeinaren bidez profesionalak gaitzeko prozedura ezartzen baita, aho-hortzak zaintzeko zerbitzuak eman ditzaten Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programaren esparruan (PADI). Honako hauek arautzen dira: gaikuntzarako betekizunak eta baldintzak; gaikuntzarako prozedura, telematika eta gardena dena eta NAOn argitaratuko dena; pertsona gaituen betebeharrak; osasun-arreta ematea; pertsona gaituen ordainsariak, eta gaikuntza iraungitzeko arrazoiak.

Halaber, arau iragankor bat ezartzen da gaikuntza aurten emateko, baita baimen bat ere, O-NOZko zuzendari kudeatzaileak programa kudeatu, garatu eta betearazteko behar diren jarraibideak eman ditzan.

Amaitzeko, 3 ERANSKIN daude, barnean hartzen dituztenak gaikuntza eskatzeko eta adierazteko ereduak, eta gaitutako pertsonen aho-hortzak zaintzeko zerbitzuengatik jaso beharreko ordainsari eta tarifak.

Iruñean, 2020ko irailaren 4a

Stua.: Manuel Carpintero Navarro

OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN
ZERBITZUKO OINARRIZKO OSASUN
LAGUNTZAKO KUDEATZAILEA

CARPINTERO
NAVARRO JESUS
MANUEL - DNI

Firmado digitalmente por
CARPINTERO NAVARRO
JESUS MANUEL
Fecha: 2020.09.16 12:10:07
+02'00'